

Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektua

PROZESUAREN ETA APUSTUEN AZALPENAK

(laburpena)

Azpeitian oso garrantzitsua da ekosistema kooperatiboa: kooperatiba asko daude (eta era askotakoak) eta kooperatibista ugari. Tradizio handia dago; aspaldi sortutako kooperatibak daude, berriak ere bai.

Beti egoten denez zer hobetua, kooperatiba komunitateak urtebeteko lan bat egin du (2024ko irailetik), Azpeitiko Udalarekin eta Mondragon Unibertsitatearekin **elkarlanean, Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektu bat** egiteko. **Ekainaren 30ean onartu** zen proiektua (*edukia: 33-39. orriak*), **aho batez, eta azpeitiKoop kooperatiba elkarteak sortu** dute.

Hauek dira azpeitiKoop-en proiektuaren **helburuak**: Azpeitian kooperatiba komunitatea osatu eta indartu; onura soziala eta ekonomikoa; eta jarraitu eraldatzen herria eta herritarrak.

Hiru bazkide figura dauzka: bazkide erabiltzaileak (**herriko kooperatibak**), bazkide langileak (**azpeitiKoop-eko langileak**) eta bazkide kolaboratzaileak (**herritarrak, herriko elkarteak...**).

Proiektuak **bi ildo** ditu: batetik, **kooperatiba berriak sortu**; bestetik, **kooperatibismoa indartzeko ekintza zehatzak** (kooperatiben foroa, unitate didaktikoa ikastetxeetan, kooperatibista berriei harrera plana; ekintzailetasuna sustatu; kanpainak...). **Apustuek izaera praktikoa** izango dute; **proiektua progresiboa** izango da. Bailerako ikuspegia ere izango du.

PROZESUA

AURKIBIDEA

1. 'HERRI EKIMENA ETA KOOPERATIBISMOA' JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK	5. orria
2. IDEIA BAT MAHAI GAINERA	7. orria
3. PROIEKTUA EGITEKO LEHENENGO PAUSOAK	11. orria
4. PROZESUKO LEHEN BATZARRA, INFORMATIBOA	14. orria
5. ZUTABE NAGUSIAK, ONARTUAK	22. orria
6. EKAINAREN 30-EAN BATZARRA, PROIEKTUA BOZKATZEKO	32. orria
7. BATZARREAN PROIEKTUA ONARTUA, AHO BATEZ	40. orria

1. 'HERRI EKIMENA ETA KOOPERATIBISMOA' JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

2021eko urriaren 5ean, Azpeitian *Herri ekimena eta kooperatibismoa* nazio jardunaldia izan zen, Azpeitiko Sanagustin kulturguneak 10 urte Herri Batzordeak eta Kultiba kooperatibak antolatuta. Euskal Herriko udalerri askotako jendea izan zen topaketan; denera, 66 lagun. Lehenik, David Fernandezek (Kataluniako Coop57) kooperatibismoaren hausnarketa bat egin zuen, eta, ondoren, Euskal Herriko lau esperientzia praktikotako ordezkariak hitz egin zuten: Ioritz Aizpuruk (Elikagunea, Azpeitia), Cristina Etxegoienek (Erreka Group, Mondragon korporazioa), Gartzen Garaioek (Ekintza Faktoria, Aiaraldea) eta Naroa Elortzak (Goienar, Euskal Herria).



'Herri ekimena eta kooperatibismoa' nazio jardunaldia Azpeitian, 2021eko urriaren 5ean, Sanagustin kulturgunean.

Handik hilabete batera, hainbat ondorio atera eta argitaratu zituzten nazio jardunaldiaren antolatzaileek. Sarrera gisa, aipatu zuten “berdinen arteko elkarte gisa sortutako sistema bat” dela kooperatibismoa, “premia komun bati erantzuteko sortua. Ezaugarri nagusien artean daude balioaren inguruan lotura sortzea, balio argi batzuk jarraituz, kooperazioan zentratua eta tokiko errealitatean errotua”.

“Soilik elkartuta eta elkarrekin lotuko dugu gizartean aurrera egitea”, esan zuen David Fernandezek Azpeitiko jardunaldian, ondorioen dokumentuan ere irakur daitekeenez.

Hain zuzen, *Herri ekimena eta kooperatibismoa* nazio jardunaldiaren batzorde antolatzaileak ondorio hauek atera zituen:

“1. Kooperatibismoa, zer eta zertarako:

- Gizartearen eraldaketan eragin, balio sozialetan oinarrituta.
- Komunitatearekiko konpromisoa, herri onura bilatuz.
- Kohesio soziala.
- Herri ekimenetik, herriarentzat eta herritarrentzat.
- Pertsonak erdigunean jarri.
- Errealitate berriak sortu.
- Tokiko eta herritarren beharretara egokitu.
- Elkarrekin bizi eta lan egiteko espazioak eraiki.
- Kanpo eta barne elkartasuna.

2. Nola:

- Ekosistema kooperatiboa artikulatu.
- Interkooperazioa. Sareen sarea.
- Herritarrak ahaldundu.
- Gizarteko askotariko eragileekin elkarlana.
- Institutuzio publikoak inplikatu.
- Parte hartzea, komunikazioa, gardentasuna...
- Saretze lokala eta nazionala.
- Hazkunde horizontala.

3. Arriskuak:

- Hazkunde arazoa. Noraino hazi?; eta zertarako?
- (Eskala handian) Jende gehienaren beharrak ez asetu.
- Lurralde batean kooperatiba asko egoteak ez eragitea eraldaketa soziala”.

2. IDEIA BAT MAHAI GAINERA

Azpeitiko Sanagustin kulturguneak 10 urte Herri Batzordeak 2021 bukaeran amaitu zituen bere lanak. Handik, ordea, kooperatibismoaren gaiaz hitz egiten segitzeko talde bat sortu zen, eta Azpeitian sare kooperatiboa ehuntzeko eta kooperatibismoaren balioak zabaltzeko eta indartzeko ideia bat atera zen.

Idea horri forma txiki bat eman, eta 2022an Azpeitiko kooperatibekin bilera sorta bat egin zuen aipatutako taldeak, banaka. Hauekin: lehen sektoreko

Abelur, Lurgintza, Ibai Eder eta Artxarekin: herri ekimenetik sortutako Ikasberri ikastola, Urolako Komunikazio Taldea, Kulturaz eta Ekindarrekin, eta industria alorreko Lan Mobel, Domusa eta Zubiolarekin. Geroago, kirol arloko BiziKJFrekin ere bai.

Era berean, Azpeitiko udal gobernuarekin (EH Bildu) eta EAJren udal taldeekin ere egin ziren hartu-emanak.

Baita Mondragon Unibertsitateko (MU) LEINN adarreko (Ekintzailletza) Azpeitiko eta inguruko lau ikasle ohirekin ere.

Guztiekin egon ondoren, taldeak denen arteko batzar ez-publiko bat deitu zuen. 2022ko azaroaren 28an egin zen, Azpeitiko Basazabal jauregian. Ia erabatekoa izan zen partaidetza.



Azpeitian kooperatibismoaz egindako batzar ez-publikoa, 2022ko azaroaren 28an, Basazabal jauregian.

Batzarrean aipatu zen Azpeitian kooperatiba asko daudela, arlo desberdinetakoak. “Ikusten da eredu bezala funtzionatzen duela kooperatibismoak, bai balioetan (logika sozialak, molde humanoagoak, gertuko erabakiguneak...), bai emaitzetan”. Kooperatibista kopurua ere nabarmentzekoa dela esan zen, denera 2.200 pasatxo daudelako.

Hala, garrantzitsutzat jo zen herriko ekosistema kooperatiboak elkar ezagutza izatea eta sare bat osatzea, “proiektu praktikoak pentsatzeko”.

Batzarrean honakoak ere aipatu ziren, besteak beste:

- “Kooperatibismoaren izpiritua galduz doa. Berreskuratu beharra.
- Kooperatibismoaren balioak gazteei transmititu.
- Herritarrekin eta kooperatibistekin ere lanketa egin, helburu sozialak lortzeko. Formazioa ere landu.
- Balioak eguneratu. Prozesu dinamikoa.
- Azpeitian potentzialitate handia dago. Kooperatiba asko, askotarikoak. Ibilbide luzekoak eta proiektu berriak. Pauso berrietarako oinarria da.
- Garrantzitsuak dira saretzea eta herrigintza.
- Ekosistemak laguntzen du eragiten. Batera aritzearen garrantzia.
- Kultura politiko berrian sakondu, elkarlanerako.
- Kooperatiben artean sinergiak bilatu.
- Globalizazioa, indibidualismoa eta kapitalismoarekin, amildegira bidean. Garrantzitsuak dira balio komunitarioak eta herri ikuspegia.

- Herritarrek kooperatiba sortzeko zerbitzua falta da Azpeitian”.

Funtsean, proiekturako bi ildo nagusi aurreikusi ziren:

- “Arlo berriak kooperatibizatu. Diagnostikoa egin, eta jorratu beharreko eremuak ikusi, proiektuak abian jartzeko.
- Azpeitian eta inguruan kooperatibismoa gehiago sozializatu eta kontzientzia hedatu, formula desberdinen bidez”. Aipatu zen zerbitzu funtzio bat ere izatea.

Batzarrean aho batez erabaki zen Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektu bat egiten hastea. Horretarako, egokia ikusi zen, lanketak dedikazio bat eskatuko zuela-eta, pertsona bat lanaldi erdiz-edo aritzea.

Batzarraren talde antolatzaileak akta jaso, eta egun batzuetara partaideei bidali zien (bilkuran egoterik izan ez zutenei ere bai; ontzat jo zuten erabakitakoa).

Baina gertatu zen lanerako pertsona bat ezin izan zela lortu. 2022. urte bukaeran prozesuko kideen artean beharraren berri eman zen, izenak eskatuz, eta, aukerarik atera ez zela-eta, 2023an bi deialdi publiko egin ziren, baina horietan ere, emaitzarik ez. Azpeititik kanpoko aditu batzuekin ere hitz egin zuen talde sustatzaileak, erreferentziaren bat lortzeko asmoz, baina ezer ez.

Ondorioz, 2023ko ekainean asmoa *impasse* egoera batean sartu zen. 2024an ere hala egon zen.

3. PROIEKTUA EGITEKO LEHENENGO PAUSOAK

Baina Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuari ekiteko gogoia ez zegoen kaxoian giltzapetua. Gogo kolektibo bat bazen, eta lanketa hasteko bide berriak urratzen hasi zen talde sustatzailea.

Hala, 2024ko udan Mondragon Unibertsitateko LEINN adarrera jo zuen taldeak, hango azpeitiar ikasle ohiek aholkatuta, Azpeitiko ideia hau azaltzeko eta jakiteko gradu bukaerako lana egingo zuen ikasleren batek lantzeko interesik bazuen. MUK ongi ikusi zuen egitasmoa, eta ikasle baten izena aipatu zuen: Imanol Ahedo (Gueñes, Bizkaia, 2003).

MUrekin eta Imanol Ahedorekin hartu-eman bat izan ondoren, proiektua lantzeko langile gisa Ahedo hartzea erabaki zuen talde sustatzaileak.

Era berean, Azpeitiko Udalarekin egon zen taldea, langilearen lanaldia finantzatzeko aukerarik bazen jakiteko. Udala prest azaldu zen, eta MUrekin hitzarmen bat egin zuen 2024ko irailean. Udalak finantzatu du, beraz, prozesu hau.

Hitzarmenean, MUK halakoetarako ezarrita duen parametroa hartu zen kontuan: 750 orduko lanaldia, soldatarekin eta Gizarte Segurantzarekin. Lehen fase bat izango zuen hitzarmenak, 2024ko irailetik 2025eko otsailera

artekoa, eta bigarren fase bat, parte desberdinek ontzat jotz gero, 2025eko martxotik uztail hasiera artekoa, proiektua bukatzeko beste 750 ordukoa. Denborak kontuan hartuz, aurreikusi zen proiektua ekain bukaerarako amaitzea eta Aherdok gradu bukaerako lana uztail hasieran aurkeztea MUn.

Ondorioz, 2024ko irailean ekin zitzaion proiektua lantzeari. Ideia landuxe bat bazen, epeak baziren, langilea bazen, MUK jarraipena egingo zion hari, Azpeitian talde eragilea sortu zen eta Udala-MU hitzarmena sinatu zen.

Talde eragileak, irail hasieran, horren denaren jakinarazpena pasatu zien ordura arteko prozesuan parte hartu zuten eragileei.

2025eko ekain bukaera artean, hiru batzar egitea aurreikusi zen: 2024 bukaeran aurrena, batzar informatiboa, prozesua nola zihoan azaltzeko; 2025eko otsailean-martxoan bigarrena, proiektuaren gako nagusiak onartzeko; eta 2025eko ekainean hirugarrena eta azkena, proiektua onartzeko, eta, onartuz gero, udazkenean prestaketa lana egiteko eta 2026 hasieran progresiboki martxan jartzeko.

Horretarako, askotariko harremanak egitea erabaki zen, Azpeitian nahiz Euskal Herrian, eta hilero barne buletin bat igortzea prozesuko eragileei.

Azpeitiko kooperatibismoa indartzeko proiektua PROZESUAN PARTE HARTZEN ARI DIREN KOOPERATIBAK		
Izena	Kokapena	Arloa
Lan Mobel	Azpeitia	Altzari ekoizpena
Domusa	Errezil	Galdaragintza
Zubiola	Azkoitia	Mekanizazioa
Artxara	Azpeitia	Tokiko elikadura. Salmenta
Ekindar	Azpeitia	Energia berriztagarria
Ikastola Ikasberri	Azpeitia	Hezkuntza
Urola Komunikazio Taldea	Azpeitia-eskualdea	Komunikazioa
Kulturaz	Azpeitia	Kultura
BiziKJF	Azpeitia	Kirola
Abelur	Azpeitia	Nekazal aholkularitza
Lurgintza	Azpeitia	Nekazal aholkularitza

- *Lurgintzak eta Abelurrek egoitza soziala Azpeitian duten arren, haien zerbitzuak eta izaerak Gipuzkoa osoa barnebiltzen dituzte.*
- *Domusa, Errezilgoa izanik ere, hango bazkide asko Azpeitikoak dira, eta enpresa Azpeitiko proiektu batzuetan inplikaturik dago.*
- *Zubiolak egoitza soziala Azkoitian du egun; lehen, Azpeitian zeukan eta bazkide asko azpeitiarrak dira.*

Iraurgi Berritzen Urola bailarako garapen agentziarekin 2024ko abenduan izandako hartu-emanen talde eragileak jakin zuen Azpeitian 2024an beste kooperatiba batzuk sortu zirela: Labesu (ogi ekologikoa egiten du), Mendizaliek (ostalaritza) eta Haginpe (ostalaritza). 2025 hasieran talde eragilea hirurekin banan-banan bildu zen, elkarren berri izateko eta ideia azaltzeko. Momentuz, horretan geratu zen harremana.

4. PROZESUKO LEHEN BATZARRA, INFORMATIBOA

2024ko abenduaren 3an, prozesuko aurreneko batzar ez-publikoa egin zen, Basazabal jauregian. Batzar informatiboa izan zen, prozesuaren jarraipen modura.



Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuko prozesuko lehen batzar ez-publikoa, 2024ko abenduaren 3an, Basazabal jauregian.

Iragarri bezala, batzarrean ez zen erabakirik hartu. Irailetik ordura arte egindakoaren berri eman zen (adibidez, 26 eragilerekin egin zirela bilerak; horien artean, herriko kooperatiba denekin). Sare irudia landu nahi izan zen berriz ere, eta aurrera begirako pausoak aipatu ziren. Akta jaso, eta pasatu egin zen.

Aipatu zen proiektuko bi ildoak ('Espazio berriak kooperatibizatu' eta 'Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa') sakontzen hasiko zela talde eragilea, eta pare bat hilabetera-edo egingo zela hurrengo batzar ez-publikoa, egitasmoaren lehen zirriborro bati buruz hitz egiteko.

Halaber, proiektuko ikasle-langile Imanol Ahedok Azpeitiko diagnostiko bat aurkeztu zuen (*Marko teorikoa. Urola Erdia, Azpeitia*), eta Libe Bastida ASLEko teknikari azpeitiarrak, berriz, *Gazteak eta kooperatibismoa* dokumentua (hain zuzen, talde eragileak batzarrerako eskatu zion). Dokumentu honetan geroago emango da bi dokumentu horien berri.

'Espazio berriak kooperatibizatu' ildoari dagokionez, batzarreko aktan hau jaso zen, besteren artean:

“Helburuak:

- Kooperatiba berriak sortu Azpeitian. Herritik herrirako proiektuak.
- Kooperatibismoaren balioak sustatu.
- Onura soziala eta ekonomikoa bilatu.

Azpeitiko egoera:

- Zerbitzuen sektoreak indarra hartu du.
- Industriaren pisua, murriztua.
- Enpresa txikiek, saretzeko beharra.
- Lehen sektorea, egoera txarrean. Optimizatu, Garrantzia ikustarazi, belaunaldi berriak...

Idea solteak:

- Kooperatiba berriak, herriko beharretatik.
- Enpresak erakarri kooperatibismora.
- Landu beharreko arloak: lehen sektorea, etxebizitza, zaintza, alor soziala, mugikortasuna...”.

‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’ ildoaz aktak zekarrena:

“Helburuak:

- Indartu kooperatibak, kooperatibistak eta kooperatibismoa.

Ondorio batzuk:

- Kooperatibismoarekiko atxikimendua murriztu egin da.
- Gazteek norbanakoari garrantzi handiagoa.
- Formazioa landu.
- Kooperatiben arteko sarea.
- Proiektu bat ardaztu ideia baten inguruan.
- Ekonomia sozial eta eraldatzailea landu.

Jorratu daitezkeen eremu batzuk:

- Sarea:
 - Ideia baten inguruan saretu.
 - Bitarteko bat: herriko kooperatiben foroa (orokorra eta arlokakoa). Espazio partekatua.
 - Euskal Herriko eragileekin harreman sareak.
- Formakuntza:
 - Kooperatibista berrientzako harrera plana.
 - Formakuntza saioak.
 - Hezkuntza arloa.
- Elkarlana:
 - Interkooperazioa.
 - Salerosketa bateratua.
 - Langile poltsa.
 - Instituzioekin ere elkarlana: kooperatibak azpikontratatu...
- Zerbitzua:
 - Kooperatiba baten sorrerarako lagungarri izan.
 - Kooperatiben lan batzuk erraztu.
 - Kanpo harremanak ahalbidetu edo erraztu.
 - Kooperatibista gehiago izateko kanpainak.
- Kidetza:
 - Herritarrak Euskal Herriko herri ekimeneko kooperatibetan kide.
 - Herritarrak herriko kooperatibetan kide.

- Kooperatibista diren kideen zerrenda izan (informazio konfidentziala da): zifra, adina, generoa, hizkuntza, bizitokia...
- Besterik:
 - Komunikazioa (dokumentala, Internet...).
 - Ekintza zehatzak (kirol olinpiadak, Gabonetako otarrak...)”.

4.1. ‘Marko teorikoa. Urola Erdia, Azpeitia’ (Imanol Ahedo)

Imanol Ahedo Mondragon Unibertsitateko ikasle eta Azpeitiko proiektu honetako langileak 2024ko abenduko batzarrean Urola bailararen eta Azpeitiaren ezaugarri ekonomikoen eta demografikoen berri eman zuen, berak landutako *Marko teorikoa. Urola Erdia, Azpeitia* dokumentua azalduta. Dokumentua osorik erantsi zen batzarreko aktan.

Urola bailarako eta, kasu batzuetan, Gipuzkoako eta EAEko datu demografiko eta ekonomiko garrantzitsuenak azaldu zituen Ahedok, Azpeitiaren egoerari buruzko diagnostiko zehatza egiteko baliagarri izan daitezkeen ezaugarri ekonomikoei eta demografikoei buruzko ikuspegi orokorra izateko.

Era berean, Azpeitiak azkeneko urteetan izan duen bilakaera ere islatu zuen dokumentuan, kontuan hartuta COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak eragina izan zitzakeela 2020. urtean, beste datuen hazkundearekiko desberdintasuna adieraziz.

Ondorengoa, *Marko teorikoa. Urola Erdia, Azpeitia* dokumentuaren laburpena da, batzarreko aktan jasotakoa: [\[osorik, hemen\]](#)

“Barne Produktu Gordina (BPG):

BPGren analisia egin zuen, eurotan. Horrela, ikusten da 2018an Azpeitiko BPG 34.729 eurokoa izan zela; 35.571 eurokoa 2019an; 31.210 eurokoa 2020an; eta 32.401 eurokoa 2021ean.

Azpeitiak Gipuzkoarekiko eta EAErekiko jarrera aztertuz gero, ikusten da Azpeitiak urte guztietan Gipuzkoak eta EAEk baino BPG txikiagoa izan duela.

Urola bailarako beste lau udalerriekin alderatuta, Azpeitiaren BPG laugarren postuan zegoen 2018-2021ean. Azkoitiak, Zestoak eta Errezilek zuten Azpeitiak baino BPG handiagoa. 2019a eta 2020a hartuta, Zestoak eta Errezilek zuten Azpeitiak baino BPG handiagoa.

Dokumentuan, 2018. eta 2021. urteen artean Azpeitiko udalerrian BPGren indizeak izandako bilakaera ere azaldu zen. Beheraka joan dela ikusten da: 2018an 99koa izan zen eta 2021ean 91koa.

Establezimenduak:

Ondoren, leku horietako establezimendu moten berri eman zuen Ahedok. Azpeitiak, gainerako lekuek bezala, merkataritzan, garraioan eta ostalaritzan du jarduera nagusia, eta txikiena, informazioan eta komunikazioan.

Ehunekotan, berriz, establezimenduen banaketa EAEko gainerako lurraldeetakoaren antzekoa da.

Establezimenduekin jarraituz, eta soilik Azpeitian zentratuz, kopurua pixkanaka jaisten joan zen 2019tik 2023ra. 2019. urtean 1.116 zeuden, eta 2023an, 1079.

Demografia:

Datu demografikoei dagokionez, Azpeitia da Urola bailarako herririk jendetsuena, eta bailarako biztanleen ia %50 Azpeitian dago. Biztanle kopuruak igoera txiki bat izan zuen 2018tik 2023ra. Bestetik, iaz biztanle gehienek 40 eta 65 urte artean zituzten.

Per capita errenta:

Azpeitian per capita errenta zein den ere azaldu zuen. 23.801 eurokoa izan zen 2021ean, Urola bailarako beste udalerrien antzekoa. Per capita errentak gora egin zuen 2017tik 2019ra, eta urte horretan goia jo zuen: 26.472 euro. Jaitsi egin zen 2020an (ez da baztertzen pandemiagatik izan zitekeela), eta igo egin zen 2021ean, 23.801 eurora (2017an baino balio altuagoa, 2017an 21.434 eurokoa izan baitzen)“.

Kooperatibak:

Kooperatibei dagokionez, ikus daiteke kooperatiba kopururik handiena Azpeitian dagoela, eta horietako gehienak elkarlanean aritzen direla.

Ondorioak:

Ahedok ondorio hauek atera zituen *Marko teorikoa. Urola Erdia, Azpeitia* dokumentuan:

“BPGri dagokionez, Urola Erdiko gainerako udalerriekin alderatuta, Azpeitia gainerakoen azpitik dagoela ikusten dugu; Beizamakoaren gainetik baino ez dago. Udalerriaren beraren bilakaerari dagokionez, ikus daiteke 2021ean 2018an baino txikiagoa zela.

Dituen establezimendu motei dagokienez, Urola Erdiko gainerakoen aldean nabarmentzen da, gainerakoek baino merkataritza handiagoa baitu. Baina ez da ahaztu behar saltokiak murriztuz joan direla.

Biztanleei dagokienez, Azpeitia da biztanle gehien dituen Urola Erdiko udalerria. Azpeitiko biztanle gehienek 40 eta 65 urte artean dituzte.

Errenta pertsonalari dagokionez, oso antzekoa da Urola Erdiko udalerri guztietan.

Kooperatibei dagokionez, ikus daiteke kooperatiba kopururik handiena Azpeitian dagoela, eta horietako gehienak elkarlanean aritzen direla”.

4.2. ‘Gazteak eta kooperatibismoa’ (Libe Bastida)

Libe Bastida ASLEko teknikari azpeitiarrak iazko abenduko batzarrean *Gazteak eta kooperatibismoa* gaia azaldu zuen, *power point* baten bidez. [\[osorik, hemen\]](#)

Bastidak aipatu zuen gazteentzat garrantzitsua dela enpresetan parte direla sentitzea eta haietan erabakiak hartu ahal izatea.

Aldeko faktore ez direnen artean, adierazi zuen enpresako bazkide izateak uxatu egiten dituela, baita loturak eta erantzukizunak ere.

Bastidak ohartarazi zuen kooperatibismoaren gaia oso gutxi lantzen dela ikastetxeetan, edota kooperatibetan langile berriekiko harrera planak falta direla. Ondorioz, garrantzitsutzat jo zuen bi ekinbide horiei eustea.

5. ZUTABE NAGUSIAK, ONARTUAK

2025eko martxoaren 11n egin zen sareko hurrengo batzar ez-publikoa, Soreasuko Dinamoa sormen gunean. Aurreko asteetan lanketa bat egin zuen talde eragileak, ekarpenak jasotze aldera.

Esate baterako, ‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’ ildoaz galdetegi bat prestatu zuen, proiektuaren berri duten herritar batzuen artean betetzeko: Joane Korta eta Amaia Zumeaga LEINNeko ikasle ohiei (biak

talde eragilean laguntzen aritu dira) eta Libe Bastida ASLEko teknikariari bidali zien.

Kortaren, Zumeagaren eta Bastidaren erantzunak aztertu, eta sintesi bat egin zuen talde eragileak. Hauxe:

“‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’ ildoaren helburua eta antolaketa:

- ‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’ ildoaren helburuak zera izan beharko luke: Azpeitiko eta bailarako/eskualdeko kooperatiba sistema indartzea eta kooperatibismoaren balioak hedatzea. Horretarako, baliagarria izan daiteke lan-sozietateak ere kontuan hartzea, kooperatibismoaren balioekin bat egiten baitute.
- Proiektua garatzeko, pertsonak ardatz dituen eredia behar da, pertsonen partaidetzatik eta konpromisotik eraikia. Helburua nahiko orokorra denez, beharrezkoa da pixkanakako pausoak ematen joatea.
- Bailaran Iraurgi Berritzen garapen agentziak duen egitekoa eta funtzioa kontuan hartuta, garrantzitsua izan daiteke harekin elkarlanean aritzea. Baita Azpeitiko Udalarekin ere.
- Herriko kooperatibak eta udala proiektuaren garrantziaz ohartzen joatea garrantzitsua da, dimentsio handiagoa hartzen joateko.

- Antolaketa eta garapen gisa, ondo ikusi da Aingeru Ruizek aipaturiko blokeak finkatzea: interes enpresariala eta interes kooperatiboa.
- Eta jadanik egindako diagnostikoan oinarrituta (kooperatiben eta eskualdearen beharrak identifikatuta), onena da kontrasteak egitea gauzak zehazten hasteko.

lIdoko ekintza posible garrantzitsuenak:

- Kooperatiben lanak errazteko zerbitzuak eskaini.
- Interkooperazioa lantzeko foro eta espazio partekatuak.
- Langile poltsak.
- Kooperatibaren sorrerarako bidelaguntza.
- •Instituzioekin elkarlana.
- Formakuntza saioak.
- Kooperatibista berrientzat harrera planak.
- Hezkuntzan kooperatibismoa sustatu.
- Kooperatiben arteko elkarlana/proiektuak bultzatu”.

Modu berean, eta prozesuan zehar esandakoa jasoz, martxoko batzarretik aurrera talde eragilea bere idazkietan aipatzen hasi zen egitasmoak lokalak izango zirela, baina kasuan zabalagoak ere bai. Zehazki:

- “Azpeiti mailako proiektuak.
- Azpeitian sortutako proiektuak, baina bailara mailakoak.
- Azpeitian sortutako proiektuak, baina nazio mailakoak”.

Aliatuak izatearen garrantzia ere aipatu zen:

- “Prozesu honetan parte hartzen ari diren eragileak gero ere bidelagun izatea ezinbestekoa da: Azpeitiko Udala eta kooperatibak (sarea, ekarpenak, eragiteko ahalmena...) eta, bere neurrian, Mondragon Unibertsitatea.
- Garrantzitsua izango da aliatu gehiago izatea. Aipatu direnak: UEMA, Iraurgi Berritzen... Elkarlana edo konplizitatea sustatu”.

Iraurgi Berritzen, Urola Erdiko Garapen Agentzia da, eta “tokiko udal eta eragileekin lankidetzan, sustapen sozioekonomikoaren bitartez eskualdea eraldatu eta ongizate maila hobetzea da” haren asmoa. Iraurgi Berritzenekin bilera batzuk izan ditu talde eragileak. Izan ere, bailarako herritarrek euren proiektuak aurkezten dituzte han, gauzatzeko helburuarekin. Ondorioz, prozesu honetan ezinbestekotzat jo da Iraurgi Berritzenekin hartu-emana izatea eta elkarlanean aritzea, haren egitekoak bikoiztu gabe.

Martxoaren 11ko batzar ez-publikoan ontzat jo ziren Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuaren gako nagusiak, aho batez. Batzarrean parte hartzerik izan ez zuten kideek eta entitateek ere aho batez onartu zuten gero. Zutabeak finkatu ziren, beraz. Akta pasatu zen ondoren.

Proiektuaren gako nagusien laburpena, orduko idatzian jaso zenez:

- “Helburuak:
 - Azpeitian kooperatibismoa indartu.
 - Onura soziala eta ekonomikoa bilatu.
 - Komunitatea sortu, egonkortu eta zabaltu.
 - Izaera: lan estilo zabala eta baterakoia.
 - Ildoak:
 - ‘Espazioak kooperatibizatu’. Proiektu berriak edo martxan+asmoak diren beste proiektuak erakarri. Egitasmo praktikoak.
 - ‘Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa’.
- Bi bloke:
- Interes enpresariala: kooperatiben behar zehatzei eta orokorreari erantzun.
 - Interes kooperatiboa: jarduera soziopolitikoak, kooperatibismoaren balioak zabaltzeko.
 - Blokeetako ekintzak: iraunkorki landu balioak (foroa, interkooperazioa, sentsibilizazioa...) eta apustu zehatzak.
- Dinamika:
 - Progresiboa.
 - Kooperatibismoa indartzeko proiektu hau martxan jartzean, asmoa da ildo bakoitzean gutxienez egitasmo batekin ekitea, eta hurrengoa pentsatuta izatea.
 - ‘Espazioak kooperatibizatu’ ildoan, gure lana izango da egitasmo zehatzak pentsatu eta


sustatzea, eta bertan ariko diren kideekin martxan jartzea. Behin proiektu bat abian denean, autonomia izango du. Hau da, kooperatiba sortu berri hori organikoki ez da egongo guk sortuko dugun entitatean* (*ikus 'Bideragarritasuna'). Jarraipena egingo diogu eta herriko kooperatibismoaren sareko kide izango da.

- 'Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa' ildoan, berriz, gure egitekoa zuzeneko izango da. Hau da, proiektu honetako entitateko kideak ariko dira ildoko lanak egiten, edo, arrazoi jakinak tarteko, guk hartutako jendea.
- Bideragarritasuna: Azpeitian kooperatibismoa indartzeko, egitura juridikoa eta profesionala sortuko dugu. Bideragarritasun plana egiten ari gara, orain lehentasun hauek izanik:
 - Forma juridikoa hartzea. Bigarren mailako kooperatiba sortzea proposatzen dugu. Ezaugarri batzuk: bazkide figurak izango ditu (langileak, herriko kooperatibak...), bazkide figuretako inork ez du gehiengo osorik izango eta erabakiak kontsentsuz hartzeko lan egingo da, instituzioekin eta hitzarmenak egingo dira...
 - Hasierako finantzazioa garrantzitsua izatea. Segurtasun ekonomikoa izateko ere, hasieran nagusiki udalaren eta herriko entitate batzuen

ekarpen ekonomiko bereziak izatea planteatuko da.

- Hasteko, gastuetan zuhurtzia izango dugu: langile profesionalak kontratatzean...
- Faseak: datorren ekainean, batzar batean proiektua aurkeztuko du talde eragileak (ekintzak, aurrekontua...), eta bozkatu egingo da. Asmoa litzateke urtea bukatu baino lehen proiektua martxan jartzea eta aurkezpen ekitaldi bat egitea”.

Batzarrean, koadro hau azaldu eta eman zitzaien prozesuko eragileei:



Hain zuzen, bigarren ildoko bi blokeena izan zen berrikuntza bat. Mondragon Unibertsitateko LEINNeko Aingeru Ruiz irakaslearena da ideia, talde eragileari batzar aurreko bilera batean esandakoa. Hau izan zen Ruizek formulatu zuena:

- “Interes enpresariala:
 - Behar zehatzak. Enpresa bakoitzari dagozkion aferak eta bakoitzak bereak izango ditu. Puntu honetan behar berak edo antzekoak bilatu behar dira, haiek elkarlanean aritzeko. Hemen sartu ahal ditugu: foroak...
 - Behar orokorrak. Kooperatiba batek baino gehiagok partekatzen dituzten beharrak eta, seguruenik, guztiek aurkituko dituzten zailtasunak. Hemen, finantzazio beharrak eta kontratazioak sar daitezke, beste batzuen artean.
- Interes kooperatiboa:
 - Jarduera soziopolitikoa. Kooperatibismoaren balioak zabaltzeko balio duten ekintzak. Ekonomia eraldatzailearen eta bestelako kontzeptuen garrantzia hautematen da. Kontu dezente landu daitezke: bazkidetza kanpainak, harrera planak, formakuntza, kanpo harremanak...”.

Talde eragileak egitasmoan txertatu zuen bi blokeen ideia, dokumentu honetan arestian aipatu bezala.

Martxoko batzarrean eragileek esandako batzuk:

- “Zenbait kasutan leudekeen bikoizketarako arriskuak saihestu; esate baterako, Iraurgi Berritzenen lan batzuekiko.
- Iraurgi Berritzeni ere bidali informazioa.
- Jendeak egitasmoetako ardurarako ez du izena ematen, ez duelako ardurarik hartu nahi. Lantzen ari garen proiektu honek horretarako ere balio beharko luke herritarrak ahalduntzeko, kolektibotasuna bultzatzeko, kooperatibismoaren aldeko giroa sustatzeko...
- Proiektuaren egitura sortzean, baliteke kooperatiba batzuek artean formalki ez izatea bertan parte hartzeko erabakia hartua. Talde eragileak erantzun zuen alde horretatik ere progresiboa izango dela egitasmoa, eta erabaki formala hartu artean ere sareko kide izan daitekeela”.

EAJren udal taldeak ere egin zituen ekarpenak, talde eragileak harekin martxoaren erdian egindako bilera batean. Garrantzia eman zion proiektua bailara mailakoa izateari, era askotako harremanak edukitzeari (Iraurgi Berritzenekin, bereziki) eta bikoizketarik ez egoteari. EAJren ustez, kooperatibak sortzean, “balio handiko” proiektuen alde egin behar da: arlo teknologikoa, energetikoa, biosanitarioa... Eta industria arloa “lehenetsi” beharko li-tzateke. Lehen sektorearen eta etxebizitzaren arloak ere kontuan hartzeko eskatu zuen. Era berean, EAJk zioen kooperatibek langile multzo aldetik garrantzitsuak izan beharko luketela: 25 langiletik gorakoak.

Zerbitzua ematean, esan zuen aztertu beharko liratekeela elkarteak, elkargoak edota erosketa zentralizatuak bezalako aukerak.

Udal gobernuarekin ere egon zen talde eragilea garai haietan; besteak beste, arlo sozialari buruz hitz egiteko, udalak arlo horretan zerbitzu eta baliabide asko dituelako, eta, beraz, ezagutza zabala. Garai bertsuan, Mondragon Unibertsitatearekin prozesuko bigarren faseko hitzarmena egin zuen udalak.

6. EKAINAREN 30-EAN BATZARRA, PROIEKTUA BOZKATZEKO

Ondorioz, izaera eta filosofia garbi izanik, helburuak ere bai, egitura mota, ildoak... talde eragileak proiektua zehazteari ekin zion apirilean, ekain bukaerako batzarrean aurkezteko asmoz. Hil hasierako buletinean *Momentuko egoera* dokumentua erantsita bidaltzen joan zen, eta maiatz bukaeran prozesuko kooperatibekin batzarreko proposamenaren kontrastea egin zuen.

Hain justu, talde eragileak maiatzaren 30ean itxi zuen proposamen dokumentua, eta prozesuko kideei helarazi zien (11 kooperatiba, udal gobernu (EH Bildu), EAJren udal taldea eta Mondragon Unibertsitatea), baita Libe Bastidari eta, dokumentuan aipatzen zirela-eta informazio gisa, Iraurgi Berritzen garapen agentziari, Jauzika heziketa elkarteari, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari eta Izarkom telekomunikazio kooperatibari ere.

Ekainaren 2ko buletinean jakinarazi zien ekainaren 30ean izango zela proiektua bozkatzeko batzarra, 10:00etan, Dinamoan.

Ekainaren 16an egin zuen deialdi ofiziala, gai zerrendarekin. Zehazki, bozkatuko zen dokumentua berriro bidaltzeaz gain, eranskinak ere helarazi zizkien: sortuko litzatekeen egituraren [estatutuak](#), ordura arteko prozesuaren azalpena eta bi ildoetako apustuen ezaugarri eta argudioak.

Talde eragileak, udal gobernuarekin eta EAJren udal taldearekin hitz eginda, erabaki zuen batzarrean boto eskubidea kooperatibek baino ez zutela izango. Batzarrerako entzule gisa gonbidatu zituen Iraurgi Berritzen, Jauzika, UEMA eta Izarkom.

Hain zuzen, proiektu hau aurkeztuko du talde eragileak batzarrean bozkatzeko:

**“Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektua
Ekainaren 30eko batzarrerako proposamen dokumentua**

Azpeitian oso garrantzitsua da ekosistema kooperatiboa: kooperatiba asko daude (eta era askotakoak) eta kooperatibista ugari. Tradizio handia dago; aspaldi sortutako kooperatibak daude, berriak ere bai. Katea ez da eten.

Beti egoten denez zer hobetua, Azpeitian kooperatibismoa indartzeko ideia atera zenetik, denon artean ekosistema horri forma bat emateko saioa egiten ari gara. Lehendabizi, elkarren berri izan eta biltzen. Ondoren, ikuspegi zabala izanik, egoera aztertu eta neurriak proposatzen.

Prozesuko bileretan aipatu izan dugu esan hau: desberdin pentsa dezakegu, baina batera pentsatu behar dugu. Prozesu honetako eragileek kooperatibismoaren balioak partekatzen dituzte, nahiz eta bakoitzak bere lan ildoak eta jarduera dituen. Prozesu honetan, foro bat eratu, eta herri bezala pentsatzeko ariketari ekin genion. Herriko beharrei erantzun nahi zaie, herrian hartuta erabakiak. Pixkanaka, horren guztiaren aldeko klima bat sortzea da xedea, eta erreferentzia egitura bat.

Talde eragileak badu dagoeneko proiektu bat, lanketa baten ondoren 2026an gauzatzen hasteko modukoa: egituraren forma juridikoa, egiturako bazkidetza motak eta erabakiak hartzeko modua, garatu daitezkeen ildoak (kooperatiba berriak eta ekosistema kooperatiboa indartzeko apustuak),,,

Ekainaren 30ean egingo dugu proiektu horri buruzko batzarra, astelehenarekin (10:00, Dinamoa). Bozketa egingo dugu, onartzeko edo ez.

Hau da Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuaren proposamena:

1. HELBURUAK

- Azpeitian kooperatiba komunitatea osatu > indartu.
- Onura soziala eta ekonomikoa.
- Jarraitu eraldatzen herria eta herritarrak.

2. EGITURA

2.1. Bigarren mailako kooperatiba sortu. Ezaugarri nagusiak:

- Irabazi asmorik gabekoa.
- Bazkideak. Hiru figura: kooperatibak (Bazkide erabiltzaileak), langilea(k) (Bazkide langileak) eta besteak: norbanakoak, entitateak... (Bazkide kolaboratzaileak).
- Bazkidetza figuren artean inork ez %50 baino gehiago. Kontsentsua.
- Zuzendaritzako hiru karguak: hasieran kooperatibetako bi lagun eta langilea. Dena dela, bozeramailetza adostu.
- Kooperatibaren apoderatua: langilea.
- Izena: azpeitiKoop (erregistroan libre dago izen hori).
- Kooperatiba eratzeko prozedura: hilabete / hilabete eta erdi.
- Egoitza: hasieran Dinamoa sormen gunean, Soreasun (gero, ikusiko).

2.2. Hasierako kapitala.

- Proiekturako kooperatiba sortzeko. denera 3.000 euroko kapitala jarri behar da.
- Hasieratik bazkidetzan sartuko diren kooperatiben eta langilearen artean osatu kapitala, honela: 3.000 euro zati horrenbeste kide (momentuan dauden kideak). Kontu organikoengatik-edo (gaiak urteko batzarretik pasatu behar...) momentuz sartu ezin dutenek, gero jarriko dute dagokiena.

2.3. Giza baliabideak.

- Aurtengo iraila-abenduan (proiektua prest jartzeko), langile bat lanaldi erdiz. Kontratuarekin.
- 2026rako (proiektua martxan jartzeko), gutxienez langile bat lanaldi osoz. Kontratuarekin.

2.4. Aurrekontua, finantzazioa.

- 2025eko iraila-abendurako aurrekontua 8.000 euro: langilea lanaldi erdiz (6.000 euro), kooperatiba erregistratzeko notaritzako-eta gastuak (500 euro), dietak (500 euro), urte bukaerako aurkezpeneko ebentoa (500 euro) eta besterik: gestoria, bloga... (500 euro). Momentuz, kooperatiba batzuei laguntza eskaera.
- 2026ko aurrekontua eta finantzazioa, aurtengo udazkenean aztertzeko gaia: ekarpen bereziak, diru laguntzen deialdiak, proiektuko apustu batzuekin balizko diru iturri propioak...

3. APUSTUAK

3.1. Izaera.

- Hasieratik erakutsi apustuek izaera praktikoa duela.
- Progresiboa.

3.2. Lehen ildoak: 'Espazioak kooperatibizatu'.

Egitekoa: sustatu proiektu berriak, animatu eragileak proiektuak garatu ditzaten. Kooperatiba berri horiek organikoki ez dira gure egiturarenak izango; sareko kide izango dira.

- Martxan den egitasmo bat kooperatiba bihurtu, ahal dela 2026ko ekainera artean. Jauzika heziketa elkarteak prest dago aztertzeko. Gaztelekua, ludotekak, Gazte informazio bulegoa, udalekuak...
- Proiektu berri bat abiatu: euskararen kale erabilera sustatzeko eta ahozketasuna trebatzeko egonaldiak arnasgunerik handienean (Euskal Herriko ikasleak eta familiak, barnetegia, egitasmo nazionala, espazio bat...). Aztertzen.

Zerrendan dira prozesuan aipatutako beste ideia batzuk, gehiago edo gutxiago landuak: ekoizpen kooperatiba, jangela kolektiboa, enpresa txikien bateratze prozesuak, zaintza, bigarren eskuko produktuak, lanbide jakin batzuen formazioa, etxebizitza kooperatiboa...

3.3. Bigarren ildoak: 'Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa'.

Blokeak: interes enpresariala eta kooperatiboa. Hemen, gure kooperatibak egiteko zuzena izango du apustuen aplikazioan. Balioak landu etengabe apustuen bidez: hezkuntza, elkarlana, instituzioekin harremana, transmisioa, sentsibilizazioa, komunitatea...

2026an apustu hauek egiteko moduan ikusten dira:

- Kooperatiben foroa sortu (orokorra eta arloka).
- Unitate didaktikoa ikastetxeetan.
- Harrera plana kooperatibista berriei.
- Ekintzailetasunaz jardunaldiak. Iraurgi Berritzenekin. Ardura, kolektibotasuna, ahalduntzea, belaunaldi transmisioa...
- Kanpainak:
 - Izarkom-eko bazkidetza (telekomunikazioko herri ekimeneko kooperatiba). Mugikorrak, Internet, finkoa eta telebista.
 - (*) Otarrak tokiko elikagaiekin. Artxara kooperatibarekin. *Herriko kooperatiben aldeko kanpaina gehiago egingo dira, beren garaian.
- Barne eta kanpo komunikazioa: buletina, bloga, sare sozialak.

Zerrendan dira prozesuan aipatutako beste ideia batzuk: langile poltsa, salerosketa bateratua, dokumentala, kooperatiben lanak errazteko zerbitzua, formakuntzako beste ekinbideak, bazkidetza plan gehiago, kooperatibisten olinpiadak, plan eta baliabide bateratuak (osasuna, euskara, garraioa...).

4. PROZESUKO FASEAK

- 2024ko irailean proiektuaren lanketa hasi. Gero, bi batzar: 2024ko abenduan (informatiboa) eta 2025eko martxoan (gako nagusiak).
- Hurrena: 2025-ekainak 30, proiektua bozkatu batzarrean. Aurrez, lanketa eragileekin.
- Batzarrean proiektua onartzen bada:
 - 2025-uztail hasiera: proiektuko egitura (kooperatiba) eratzeko pausoak hasi. Eta langilea lotu.
 - Horrez gain, uztailaren 3an: Imanol Ahedo langile-ikasleak Azpeitiko proiektu honetaz bere gradu bukaerako lanaren aurkezpena Mondragon Unibertsitatean, Bilbon.
 - 2025-iraila/abendua: proiektua martxan jartzeko prestaketa lana.
 - 2025-bukaera: proiektua jendaurrean aurkeztu.
 - 2026: lehen apustuak gauzatzen hasi. Urteko ekintza plana”.

7. BATZARREAN PROIEKTUA ONARTUA, AHO BATEZ

Ekainaren 30ean egin zen Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektua bozkatzeko batzarra, Dinamoa sormen gunean. Prozesuko eragile denek hartu zuten parte (11 kooperatibek, udal gobernuak —EH Bildu—, EAJk, Mondragon Unibertsitateak eta talde eragileak), eta gonbidatu gisa bi eragile izan ziren (Iraurgi Berritzen eta UEMA). Denera, 27 lagun.

Proiektua aho batez onartu zen. Prozesuko 11 kooperatibek izan zuten botoa emateko aukera, bozketa sekretua izan zen, 11 boto jaso ziren eta guztiak izan ziren BAI, onartzen dela.

Proiektua modu labur batean gogoratuz: egitura bat sortuko da (azpeitiKoop); bazkideak kooperatibak, langileak eta norbanakoak+elkartek izango dira; bazkide figuretako inork ez du %50 baino gehiago izango; ildo bat izango da kooperatiba berriak sortzea (bi aukera, aztergai), eta beste ildoak kooperatibak, kooperatibistak eta kooperatibismoa arloak indartzea (zazpi apustu aurreikusi dira).

Batzarrean gogoratu zen proiektua osatzeko hainbat bilera egin direla iazko irailetik. Prozesuko herriko eragileekin ez ezik, talde eragilea proiektuaz, estatutuez, finantza arloaz, apustuez (kooperatibista berrientzako harrera plana, unitate didaktikoa, euskara egonaldiak, ekintzailetasuna, langile poltsa, jangela kolektiboa...) Azpeititik kanpoko hainbat eragilerekin egon da. Nagusiki, hauekin: Iker Egizabal, Aingeru Ruiz, Silbia Sarasola eta Nerea Gonzalez (MU-LEINN); Mirene Arri eta Norberto Alboniga (Elkar-lan); eta Arianne Kareaga (Lanki kooperatibismoa ikertegia). Euskal Herriko eragile

hauekin ere egon da: Bogan, Social Factory, Maitelan, BDS, U-Bai, Goratuz, Debagoiena 2030, Hernani Burujabe, Ulma, Alecop, Ereindajan, Ikastolen elkarte, AEK, UEMA eta Izarkom. Azpeitiko eta bailarako hauekin ere bai: Iraurgi Berritzen, Jauzika eta Urkome; eta prozesua azaltzeko, 2024an sortutako Azpeitiko kooperatiba hauekin: Labesu, Mendizaliek eta Haginpe.

Batzarrean iragarri bezala, sarera uztailaren 7an bidali zen bilkuraren akta, 10. barne buletinean, uztailakoan. Hauxe da akta, osorik:

“AKTA

AZPEITIAN KOOPERATIBISMOA INDARTZEKO PROIEKTUA

batzarra

Eguna: 2025eko ekainaren 30a (astelehena).

Lekua: Dinamoa sormen gunea, Azpeitia.

Hasiera eta bukaera ordua: 10:10-10:50.

Azaldu direnak: 27 lagun.

Prozesuko kideak:

Kooperatibak:

- **Domusa:** Gurutze Agirre.
- **Lan Mobil:** Nerea Iriarte.
- **Zubiola:** Iker Aizpitarte eta Iñigo Karrera.
- **Abelur:** Lurdes Alberdi eta Imanol Arrieta.
- **Lurgintza:** Nerea Alonso eta Maixux Salsamendi.
- **Artxara:** Haritz Arakistain eta Ioritz Aizpuru.

- **BiziKJF:** Mikel Segurola eta Luken Galarraga.
- **Ekindar:** Iñaki Arakistain.
- **Ikasberri:** Maite Azpiazu eta Maialen Agirre.
- **Kulturaz:** Xabier Aranbarri eta Garazi Lazkano.
- **UKT:** Leire Larrañaga eta Julene Frantzesena.

Mondragon Unibertsitatea: Iker Egizabal.

Udal gobernua: Aitor Larrañaga (EH Bildu).

EAJ: Hegoa Larzabal eta Jokin Badiola.

Talde Eragilea: Imanol Ahedo eta Enekoitz Esnaola.

Gonbidatuak (proiektuko aztergaien eta apustueta ageri diren eragileak):

- **Iraurgi Berritzen:** Alazne Larrañaga.
- **UEMA:** Eneritz Albizu.

Azaltzerik ez dute izan:

- Talde eragileko bi kide.
- Jauzika (gonbidatua).
- Izarkom (gonbidatua).

Erabakia: onartu egin da **Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektua, aho batez**. Prozesuko 11 kooperatibek izan dute botoa emateko aukera, bozketa sekretua egin da, 11 boto jaso dira eta guztiak izan dira BAI, onartzen dela. ([hemen ontzat jotako dokumentua](#))

Batzarreko gai zerrenda. ([hemen azaldutakoa](#))

- Aurkezpena.
- Prozesua.

- Proposamena.
- Bozketa.
- Proiektua onartuz gero, hurrengo pausoak eta argazkia.

Bazkidetzan sartzeko argibideak. Proiektua onartu ondoren, talde eragileak prozesuko kooperatibei azpeitiKoop-eko bazkidetzari buruzko argibideen karta bana eman die. ([*hemen argibideen karta*](#))

Batzarrean eragileek esandakoak.

- Iraurgi Berritzen: batzarra kontuan hartuta, berak prozesuaren hasieran uste zuena baino dimentsio handiagoa duela proiektuak, eta berri ona dela hori.
- Mondragon Unibertsitatea: euren helburua dela ekosistema kooperatiiboan proiektu berriak egin daitezela eta gazteak inplikatzera horietan, eta Azpeitiko proiektua ari dela hori egiten.
- Abelur: Abelur gisa desagertzera bidean doala euren arloko beste proiektu bat dela-eta, baina segitzen dutela kooperatibismoan sinesten eta merezi duela azpeitiKoop-en saiakera hau egitea.

Hurrengo pausoak.

- Uztailen: azpeitiKoop erregistratzen hasi, prozesuko kooperatibekin bazkidetzaz hizketan hasi eta langilea lotu (aurtengo iraila-abendurako lanaldi erdia; izenik baduzue, esan).

- Uztailak 7: sarera 10. buletina bidali, ekainaren 30eko batzarraren akta barne duela.

Batzarreko eta batzar osteko bi argazki.





2025eko ekainaren 30ean, Azpeitian, eskerrak emanez, talde eragilea”

2025eko uztailaren 7an, Azpeitian, talde eragilea

(ekainaren 30ko batzarreko aktarekin batera osatuko dokumentua)(

PROIEKTUKO BI ILDOETAKO APUSTUAK

AURKIBIDEA

1. 'ESPAZIOAK KOOPERATIBIZATU' ILDOA	48. orria
○ 1.1. PROIEKTU BERRI BAT AZTERGAI: AZPEITIA, EUSKARAREN ERABILERARAKO GUNE	49. orria
○ 1.2. ELKARTE BAT KOOPERATIBA: JAUZIKA HEZIKETA ELKARTEA, AZTERTZEKO PREST	52. orria
2. 'KOOPERATIBAK, KOOPERATIBISTAK, KOOPERATIBISMOA' ILDOA	54. orria
○ 2.1. KOOPERATIBEN FOROA: OROKORRA ETA ARLOKAKOA	55. orria
○ 2.2. UNITATE DIDAKTIKOA IKASTETXEETAN	57. orria
○ 2.3. HARRERA PLANA KOOPERATIBISTA BERRIEI	59. orria
○ 2.4. EKINTZAILETASUNAZ JARDUNALDI PUBLIKOA	62. orria
○ 2.5. KANPAINA: IZARKOM TELEKOMUNIKAZIO KOOPERATIBAKO BAZKIDETZA	65. orria
○ 2.6. KANPAINA: OTARRAK TOKIKO ELIKAGAIEKIN, ARTXARA KOOPERATIBAREKIN	68. orria
○ 2.7. KOMUNIKAZIOA: BLOGA, BULETINA, 'GUKA'...	69. orria

Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuaren prozesuko hurrengo batzarra ekainaren 30ean izango da, eta talde eragileak han aurkeztuko du proiektua, bozkatzeko. Onartzen bada, irailetik abendura bitartean, proiektuak aipaturiko apustuak aztertu, sakondu eta, kasuan, prestatuko dira, proiektua 2026 hasieran martxan jartzeko, betiere modu progresiboan.

Proiektuan bi ildo daude:

- ‘Espazio kooperatibizatu’.
- ‘Kooperatibak, kooperatibistak. kooperatibismoa’.

Batzarrerako dokumentuan ildoka zer apustu landuko den zehaztu du talde eragileak, bakoitzaren ohar batzuk jarritz. Hemen zabalago daude azalduta.

1. ‘ESPAZIOAK KOOPERATIBIZATU’ ILDOA

Proiektuko ‘Espazioak kooperatibizatu’ ildoan egitasmoak kooperatiba izateko bideak zehaztu dira:

- Proiektu berriak izatea, prozesu honetan ateratako ideietatik.
- Martxan dauden eta kooperatiba ez diren proiektuak (enpresa txikiak, elkarteen egitasmoak...), kooperatiba bihurtzeko saioak.
- Momentuz asmo diren edo sortze bidean dauden beste proiektuak (Iraurgi Berritzenen aurkeztutakoak...), kooperatiba bihurtzeko saioak.

Talde eragileak antzen hasteko moduko bi egitasmo ikusten ditu:

- 1.1. Proiektu berri bat: Azpeitia, euskararen erabileraren egonaldiatarako gune. Egitasmo praktiko, zabal eta nazionala, arnasgunerik handiena den udalerrian. Aztertzen eragile batzuekin.
- 1.2. Martxan den herriko elkarte bat kooperatiba bihurtu: Jauzika heziketa elkarte. Prest dago aztertzeko.

1.1. PROIEKTU BERRI BAT AZTERGAI: AZPEITIA, EUSKARAREN ERABILERARAKO GUNE

Proiektu berri bat abiatzeko atalean, euskararen kale erabilera eta ahozotasuna lantzeko ideia bat atera zen prozesuko bilera batean, otsailean. Talde eragileak dokumentu bat osatu zuen apirilean: *Azpeitia, euskararen erabileraren egonaldiatarako gune* izenekoa.

Hamar orrialdeko dokumentua da. Hirutan, egitasmoaren funtsa dator, jakingarri batzuekin; gerokoetan, aipatutako kontzeptu eta gai batzuk sakonduta daude.

Funtsean, eta eskematikoki esanda, zerak datoz dokumentuan:

- Euskararen egoera: erreakzionatzeko premia.
- Arnasguneei eutsi.
- Azpeitian, baldintzak euskararen erabilerarako.
- Proiektu bat: *Azpeitia, euskararen erabileraren egonaldiatarako gune*.

- Proiektuaren zenbait ezaugarri:
 - Helburuak:
 - Euskararen kale erabileraren proiektu praktikoa eta erreferentea.
 - Proiektu lokala (Azpeitia, bailara) eta nazionala.
 - Askotariko jendearen gunea, arnasgunerik handiena den udalerrian.
 - Euskararen iraupen eta biziberritzerako, arnasguneak ezinbesteko.
 - Euskararen aldeko kontzientzia indartzeko espazioa.
 - Ekinbide batzuk:
 - Ikasleen egonaldiak.
 - Gaztetxoen udalekuak.
 - Familien egonaldiak.
 - Helduen euskalduntzerako barnetegia.
 - Euskararen historia eta egoeraren ezagutza, transmisio eta kontzientziaziorako espazio interaktiboa.
 - Proiektuan ardaztuta, beste arlo batzuetako ekinbideak. Tokiko elikadura, hezkuntza, kultura, turismoa, ingurumena, aisialdia...
 - Proiektu kolektiboa. Euskaalgintzako eragileak ez ezik, instituzioak, hezkuntzako eragileak, eragile ekonomikoak...

- Kooperatibismoa. Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektua egiteko prozesu bat martxan da, eragile askoren artekoa, eta euskara egonaldiena hango egitasmo bat izan daiteke. Egitasmo honetarako kooperatiba bat sortu, eta kooperatibismoaren balioak landuko lirateke: onura eta logika sozialak, molde humanoak, erabakigune gertukoak eta zabalak...
- Eraikin bat. Egitasmoak, anbizioa izanik eta izaera praktikoa edukitzeko, eraikin bat ere behar du: jendea hartzeko, ekinbideak egiteko, jarduera iraunkorra izateko... Espazio aldetik ere, beraz, erreferentzia garrantzitsu bat.

[[momentuko dokumentua osorik irakurgai, hemen](#); eskatzen da kooperatibismoaren prozesuko saretik kanpo ez ibiltzeko zabaltzen]

Euskara egonaldien egitasmoa arnasgunerik handiena den udalerri Azpeitian egongo litzatekeela eta, taldea eragilea lehenik UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen koordinatzailearekin egon zen, apirilean. Hain zuzen, 118 udalerri dira UEMAk kide.

Nahiz eta orain gai honen dinamizazioa talde eragileak izango duen, UEMAr eskatu zion zenbait arlotan bidea elkarrekin egiteko, eta ados azaldu zen. Hala, biak apirilean Azpeitiko Udal Euskara batzordeburuarekin egon ziren, eta maiatz bukaeran, udal gobernu osoarekin. Era berean, maiatz bukaeran

AEKren eta Ikastolen Elkartearen arduradun nagusiekin bildu ziren. Bilera horietan asmoa azaldu zitzaien, kontrastea egin eta lehen ikuspuntuak jaso. Beste eragile batzuekin ere egon behar da, jakina: HABE, eskola publikoa...

Ekainaren 30ean kooperatibismoaren prozesuko batzarrean proiektu orokorra onartzen bada, euskara egonaldien egitasmoa ere gehiago lantzen hasiko da talde eragilea.

1.2. ELKARTE BAT KOOPERATIBA: JAUIZIKA HEZIKETA ELKARTEA, AZTERTZEKO PREST

Martxan den herriko elkarte bat kooperatiba bihurtzeko atalean, proiektuko talde eragileak Jauziika heziketa elkartera jo du, eta Jauziika prest azaldu da kooperatiba izateko aztertzeke. Udazkenean aztertuko luke.

Jauzikaren ezaugarri batzuk:

- Azpeitiko hezkuntza ez formaleko elkarte da.
- 2007an sortu zuten, azpeitiar norbanako batzuek.
- Herriko Gazteria Saila, Gaztelekua, bi Ludotekak eta Gazte Informazio Bulegoa kudeatzen ditu.
- 11 langile dira gaur egun. 11 kide horietatik hamar Azpeitikoak dira, eta bestea, Azkoitikoak. Lantaldea, bederatzi hezitzailek, informatzaileak eta teknikari koordinatzaileak osatzen dute.
- Haurren oporraldietan ekintza bereziak antolatzen ditu eta, lantaldea aritzeaz gain, hainbat begirale kontratatzen

ditu ekintzak egiteko. Gabonetan eta Aste Santuan batez beste hamabost begirale kontrata-tzen ditu, eta udal udaleku irekietan 60 begirale kontratatzen iritsi ahal da.

- Azpeitiko Emakumeen Txokoa ere elkarteak kudeatzen du. Bertan bi langile daude lanean.
- Azpeitiko Udalak finantzatzen du Jauzika heziketa elkarte. Elkartea aldiro udal deialdira aurkezten da, eta azken urteetan hark atera du lizitazioa. Udalarekin gaur egun daukan kontratua hiru urtekoa da, 2028ra artekoa.

Udal gobernua jakinaren gainean zela, Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuaren talde eragilea maiatzean harremanetan jarri zen Jauzikarekin; zehazki, koordinatzailearekin. Bilera batean proiektuaren asmo eta zertzelada nagusiak azaldu zizkion, baita bi dokumentu eman ere. Eskatu zitzaiona: kooperatiba bihurtzeko azterketa egiteko borondatea agertzeko.

Handik bi astera Jauzikak, koordinatzailearen bidez, talde eragileari jakinarazi zion prest daudela aztertzeko.

Talde eragileak iragarri zion proiektua bozkatzeko batzarra ekainaren 30ean izango dela, eta, onartzen bada, Jauzikaren kasuan udazkenean hitz egitekoen artean izango direla: atal teknikoa, juridikoa, antolaketa, udalarekin duen harremana... Hau da, informatu eta kontrastatu.

Bide batez, talde eragileak Jauzika ekainaren 30eko batzarrerara gonbidatu zuen, eta elkarteak esan zuen azalduko dela. Entzule gisa egongo da.

Jauzikak kooperatiba bihurtzeko pausoa ematea erabakitzen badu, 'Espazioak kooperatibizatu' ildoko lehenengo egitasmoa litzateke, 2026ko lehen erdian gauzatzeko asmoz.

2. 'KOOPERATIBAK, KOOPERATIBISTAK, KOOPERATIBISMOA' ILDOA

Proiektu honetako beste ildoak, 'Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa' da. Arlo horiek indartu nahi dira, apustu zehatzen bidez. Ekainaren 30eko batzarreko dokumentuan datorren bezala, bi bloke egongo dira: enpresariala eta kooperatiboa.

- Enpresariala: kooperatiben behar zehatzei eta orokorreari erantzun.
- Kooperatiboa: jardura soziopolitikoa, kooperatibismoaren balioak zabaltzeko.

Blokeetako ekintzak: lirateke iraunkorki landu behar diren balioak (foroa, interkooperazioa, sentsibilizazioa, transmisioa...) eta apustu zehatzak.

Talde eragilea 'Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa' ildoaz ideiak jaso eta lantzen aritu da, betiere, prozesuan zehar eragileek esan bezala, garbi izanik kooperatibismoaren balioak etengabe landu behar direla.

Hala, talde eragileak uste du ondorengo zazpi apustu hauek lantzeko modukoak direla, 2026an gauzatzen hasteko asmoz:

- 2.1. Kooperatiben foroa sortu: orokorra eta arlokakoa.
- 2.2. Unitate didaktikoa ikastetxeetan.
- 2.3. Harrera plana kooperatibista berrientzat.
- 2.4. Ekintzailetasunaz jardunaldiak. Iraurgi Berritzenekin.
- Kanpainak:
 - 2.5. Izarkom-eko bazkidetza (telekomunikazioko herri ekimeneko kooperatiba).
 - 2.6. Otarrak tokiko elikagaiekin. Artxara kooperatibarekin.
- 2.7. (Komunikazioa) Bloga eta sare sozialak.

2.1. KOOPERATIBEN FOROA: OROKORRA ETA ARLOKAKOA

Prozesu honetan herriko kooperatibek elkarrekin egoteko aukera izan dute, talde eragileak sustatuta. Multzoka edo denak batera egon dira iazko udazkenetik aurrera. Hala, bi batzar zabal egin dira (abenduan eta martxoan), eta datorren ekainaren 30ean hirugarrena izango da. 2022ko azaroan ere egin zen bat.

Orain arteko harremanek balio izan dute sare bat osatzeko, eta iritziak, kezkak eta gogoetak partekatzeko herrian kooperatibismoa indartze aldera.

Hartu-eman eta elkarlan hori sakondu egin nahi da. Hala, ekainaren 30eko batzarrean, 'Kooperatibak, kooperatibistak, kooperatibismoa' ildoan, talde eragileak proposatuko dituen apustuen artean kooperatiben arteko foroa sortzea dago.

Zehazki, bi foro mota:

- Kooperatiba denen arteko foroa.
- Arlokako foroak: industriakoena, lehen sektorekoena eta herri ekimenekoena.

Foroen ezaugarriak:

- Foro bakoitzaren funtzionamendua zehaztuko da.
- Barne komunikazioa landuko da.
- Ez dira organo juridikoak izango.
- Proiektuko langileak dinamizatuko ditu.

Foroen helburuak:

- Elkarren berri izan eta klima bat sortzea.
- Bakoitzaren beharrak plazaratzea.
- Interkooperazioa. Sinergiarako aukerak aztertzea.
- Herri gisa pentsatzea.
- Foro orokorrean. erabakiak hartzea azpeitiKoop kooperatibaren urteko batzar orokorrerako.

Azkeneko puntua zerbait zabalago azalduz, kooperatibismoa indartzeko proiektuko egituran (azpeitiKoop kooperatiba) sartuko diren kooperatibak 'Bazkide erabiltzaileak' figurako kide izango dira. Haien arteko foro orokorrak azpeitiKoop-en urteko batzar orokorrerako gaiez hitz egiteko eta erabakiak hartzeko balioko die.

2.2. UNITATE DIDAKTIKOA IKASTETXEETAN

Azpeitian kooperatiba asko daude, arlo desberdinetakoak. Ikusten da eredu bezala funtzionatzen duela kooperatibismoak, bai balioetan (logika sozialak, molde humanoagoak, gertuko erabakiguneak...), bai emaitzetan.

Baina Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektua egiteko prozesuan zehar, eragileen aldetik kooperatibismoari buruzko kezkarik aipatu izan da:

- Kooperatibismoaren izpiritua galtzen ari da.
- Gazteek norbanakoari garrantzi handiagoa ematen diote kolektiboari baino. Ez dute kooperatibista izan nahi, ardura bat delakoan.

Ondorioz, egoki ikusten da kooperatibismoaren balioak gazteei transmititzea; esate baterako, Hezkuntza arloan lan eginda.

Lantzen ari garen proiektuko ildo batean kooperatibismoa indartu nahi da, apustu zehatzen bidez. Eta horien artean, besteak beste, Azpeitiko ikastetxeetan unitate didaktikoak eman daitezkeela aipatu da.

Irakaskuntzako programazioko eta jarduketako unitatea, epe jakin batean garatzen diren hainbat jardueraz osatua dago, helburu didaktiko batzuk lortzeko. Unitate didaktiko batek erantzuna ematen die alderdi hauei: zer irakatsi, noiz, nola eta ebaluazioa. Hori guztia denbora jakin batean egiten da, betiere zer lortu nahi den garbi izanik eta ikasleak parte hartzera bultzatzeko mekanismoak jarritz.

Azpeitian kooperatibismoa indartzeko proiektuaren helburuetako bat da herriaren eta herritarren eraldaketa prozesua segitzea, kooperatibismoak dituen balioak ardatz izanik. Horren barruan kokatzen da, adibidez, kooperatibismoari buruzko unitate didaktikoa.

Azpeitiko ikastetxeetan ere askotariko unitate didaktikoak ematen dira. Besteren artean, eman izan dira hauei buruzkoak: zergak, finantzak, enpresak sortzeko prozedura, Korrika, Kilometroak...

Talde eragilea Judit Ruiz de Muniain-ekin (Alecop; hezkuntzako baliabide didaktikoak) eta inguruko Ekonomia irakasle batzuekin egon da, eta aukerarik ikusten da datorren ikasturtean herriko ikastetxeetan kooperatibismoaren unitate didaktikoa emateko. Bere garaian, zentroekin landu beharreko kontua da.

Jasotako informazioa eta iritziak kontuan hartuz, hauek lirateke, labur esanda, unitate didaktikoaren ezaugarriak:

- Unitateak helburu jakin bat izan.
- Ikasleak motibatu parte hartzera.
- Unitate sinplea, praktikoa eta dinamikoa.
- Ikasleei unitaterako lan zehatz eta erakargarri bat proposatu.
- Azpeitiko ikastetxeetan eman (baztertu gabe gero zabalkundea izatea).
- Hilabete inguruko iraupena (ikasturtean zehar eman daiteke).

- DBH4n (15-16 urteko ikasleak) edo Batxilergoa1en (16-17 urtekoak) eman daiteke.
- Ikastetxe bakoitzeko Ekonomia irakasleek eman, baina azpeitiKoop kooperatibak prestatua, hezkuntza zentroekin elkarlanean.
- Unitatean zehar egokitzapenak egiteko malgutasuna izan, ikasleen nahi eta beharrak kontuan hartuta.
- Euskarri desberdinak erabili, multimedian oinarrituta.
- Herriko kooperatibista historikoak eraman esperientziak kontatzera.
- Gazte kooperatibistak ere eraman hitz egitera.
- Euskal Herriko herri ekimeneko kooperatiben esperientziak ere jaso.
- Kooperatibetara irteerak egin.

2.3. HARRERA PLANA KOOPERATIBISTA BERRIEI

Prozesuan zehar esan da “pertsonak ardatz dituen eredua” behar dela, “pertsonen partaidetzatik eta konpromisotik eraikia”. Baina aitortu da ekosistema kooperatiboan badela nolabaiteko baxualdia; batetik, murriztu egin delako kooperatibismoarekiko atxikimendua; eta, bestetik, gazteek, azkeneko urteetako aldaketa sozialek eta teknologikoek eraginda, indibidualismoari garrantzi handiagoa ematen diotelako kolektiboari baino.

Dokumentu honetako aurreko puntuan ere kezka berak daude aipatuta, unitate didaktikoari buruzkoan. Ekintzailetasunari buruzko jardunaldietako puntuan ere badira. Orokorra da kezka, eta han-hemen eragiten du.

Kooperatibismoa indartzeko eta sozializatzeko ikastetxeetan unitate didaktikoaren egitasmoa abiatzea egoki ikusi den bezala, kooperatibetan lanean hasten diren langile berrientzat harrera plana prestatzea ere hala ikusi da. Harrera plana ez dago kooperatiba guztietan —gutxitan dago—, eta ikusten da aukerarik hobetzeko.

Garrantzitsutzat jo da kooperatibista berriei azaltzea zer den kooperatiba bat, zein diren kooperatibismoaren balioak, zer esan nahi duen kooperatiba bateko kide izateak, zer eskubide eta zer betebeharrak dauden, azaldu behar direla kontzeptu jakin batzuk (ahalduntzea, kolektibotasuna, erantzukizuna...), zein den Azpeitiko eta Euskal Herriko ekosistema kooperatiboa, kooperatibek herrian zer onura dakartzaten...

Talde eragileak azkeneko hilabeteetan egin dituen hartu-emanen artean, besteak beste, Arianne Kareaga Irazabalbeitia Mondragon Unibertsitateko Lanki institutuko irakasle eta ikertzailearekin egon da. Hain zuzen, kooperatibismoan berezituta dago Kareaga. Humanitate-enpresan lizentziatura egin ondoren, Mondragon Unibertsitatean tesia egin zuen: *Diskurtso kooperatiboak langile-kolektiboan. Kooperatibagintzari buruzko sentipenak Fagor Arrasaten*.

Kareaga prest azaldu da Azpeitiko proiektu honi laguntza emateko. Momentuz, esan duenaren arabera, kooperatibista berrientzako harrera plan

batean garrantzitsua izan daiteke kide berri horiekin hasieran saio bat egitea; ordu batzuetakoa:

- Aurkezpen erronda bat: zer lanpostutan ariko diren, aurretik izandako ibilbide profesionala, saioarekiko espektatibak...
- Zer dira kooperatibak? Zein elementu ditu? Zer datorkie burura? Aurrezagutzak aktibatzeke ariketa, gaiarekiko interesa eta maila neurtzeko.
- Kooperatibaren definizioa, kooperatiba motak, eta Euskal Herriko kooperatibismoaren genealogia eta berezitasunak.
- Kooperatibismoaren printzipioak.
- Kooperatibaren barne funtzionamendua (organoak eta rolak), eta bazkidearen eskubideak eta betebeharrak.
- Kooperatiben erregimen ekonomikoa.
- Saioaren ebaluazioa.

Saioak egin daitezke:

- Hasieran, kooperatiba bakoitzean:
 - Kide berriekin, multzoka. Urtearen erdian, urte horretan sartutako kide berriekin saioa; urte bukaeran, udatik aurrera sartutakoekin.
 - Era berean, kide berri bat sartu ahala, kooperatibismoaz dokumentazio bat eman.
- Saioak eta dokumentazioa, kooperatiba bakoitzera egokitutakoak.

- Saioan parte har dezakete kooperatibako Errektore Kontseiluak, aditu batek eta Azpeitiko proiektuko langileak.
- Urtean behin, urte horretan herrian kooperatibista sartutako kide berriekin saio bat egin. Helburuak lirateke: egoera desberdinen berri ematea, komunitatea...

Azken batean, formakuntza saioak izango lirateke.

Kooperatibista berriak ez direnentzat ere antola litezke formakuntza saioak.

2.4. EKINTZAILETASUNAZ JARDUNALDI PUBLIKOA

Martxoaren 11ko batzarrean eragileek esandakoa da hau: “Jendeak proiektuen ardurarako ez du izena ematen, ez duelako ardurarik hartu nahi. Lantzen ari garen proiektu honek horretarako ere balio beharko luke: herritarrak ahalduntzeko, kolektibotasuna bultzatzeko, kooperatibismoaren aldeko giroa sustatzeko...”.

Horrela, ekintzailetasunari buruzko jardunaldi publikoa antolatzeke ideia atera da, ikus-entzuleen eta hedabideen aurrekoa.

Iraurgi Berritzen Urola Erdiko Garapen Agentziarekin eta Libe Bastida ASLEko teknikari azpeitiarrarekin —iazko abenduko batzarrean *Gazteak eta kooperatibismoa* gaia azaldu zuen— hitz egin du talde eragileak, eta biek ongi ikusi dute ekintzailetasunaz jardunaldia antolatzea. Hasiera batean

Gazteak eta ekintzailetasuna izeneko jardunaldia zuen buruan talde eragileak, baina Iraurgi Berritzenek dio arazoa ez dela gazteetara mugatzen; era berean, esan du ekintzailetasuna ez dela behar bezala baloratzen.

Iraurgi Berritzenek berak Urola bailarako ekintzaileei aitortza egiten die Ekintzaileen Nazioarteko Egunean, apirilaren 16an. Bailaran enpresak sortu berri dituzten ekintzaileak omentzen ditu. Aurtengo agerraldian Iraurgi Berritzenek jakinarazi zuen 2024an bailaran 29 egitasmo berri sortu zirela, eta, horien bidez, 37 lanpostu.

Iraurgi Berritzenen Ekintzailetza Zerbitzuaren 2024ko datuak:

- Iaz 104 ekintzaile artatu zituen — %96, bailarakoak —.
- %48 emakumezkoak, %52 gizonezkoak.
- 25-45 urte artekoak %61, 45-65 urte artekoak %23, 25 urte artekoak %17.
- %62 Azpeitikoak. Hurrena gehien, Azkoitikoak: %26.
- Ikasketak: unibertsitatekoak %50, lanbide heziketakoak %30, oinarrizkoak %19.
- Landutako egitasmoak: 62.
 - Zerbitzuak 59, eraikuntza 2, industria 1.
 - Banakako egitasmoak %84, taldekakoak %16.

- Sortutako enpresak: 29.
 - Zerbitzuak 27, eraikuntza 1, industria 1.
- Sortutako lanpostuak: 37.

Agerraldian, garapen agentziak balioa eman zien ekintzaileek egindako ahaleginari eta eskualdeko ehun sozioekonomikoan izan duten inpaktu positiboari. Iraurgi Berritzenek "tokiko ekintzaileen ekarpen ausarta eta garrantzitsua" goraipatu zituen, *Guka*-ko albisteak zekarrenez. "Izan ere, beraien lanari esker, gure herriak bizi mantentzen dira eta tokiko garapen sozioekonomikoa bultzatzen da". Iraurgi Berritzenen esanetan, tokiko ekintzailetza "funtsezko zutabea" da bailarako udalerrien etorkizunerako, "herri eta kaleetan zerbitzu eskaintza zabala izaten jarraitzeko aukera" ematen baitu.

Ekitaldian, Maria Diez ekintzaile eta aholkulariak hitzaldi motibatzaile bat eskaini zuen. "Eskualdea eraldatzen duten pertsona ausartak" kontzeptua erabili zuen, ekintzaile bakoitzaren ibilbideari balioa emanez eta bidean izandako erronkei aurre egiteko moduak aipatuz.

Ekintzailetasunean sakontzeko eta hari indarra emateko balio dezake datorren urterako aurreikusitako jardunaldiak. Iraurgi Berritzenekin batera antola daiteke (prest azaldu da horretarako), eta zehaztu behar da jardunaldia bailarara mugatuko den edo proiektio zabalagoa hartuko duen. Beste hainbat ezaugarri ere hitz egiteko leudeke: zenbat eguneko jardunaldia, hizlari kopurua, zer beste formatu erabili, ondorioak atera eta nola zabaldu, zer jarraipen eman...

Ezaugarriak ezaugarri, jardunaldia garrantzitsua izan liteke ekintzailetasunaren balioa sozializatzeko, baloratzeko, eta kezken eta motibazioen berri izateko. Azpimarra jarri beharko litzaioke kolektibotasunari; hau da, egitasmo kolektiboek edo kolektiboki ekiteari, indargune bat delakoan.

Jardunaldi batzuk ez dira formula magiko bat, baina segitu behar da ekintzailetasunaren garrantzia azpimarratzen eta inziditzen.

2.5. KANPAINA: IZARKOM TELEKOMUNIKAZIO KOOPERATIBAKO BAZKIDETZA

Kooperatibismoaren proiektuaren prozesuan parte hartzen ari diren kooperatibetan 2.200 kooperatibista pasa daude. Denak ez dira Azpeitikoak eta hainbat kide kooperatiba batean baino gehiago dira kooperatibista. Dena dela, badago komunitate bat, eta proiektu honen asmoetako bat da horri forma ematea eta indartzea.

Ondorioz, besteren artean, garrantzitsua da herritar kooperatibista gehiago izatea: bai herriko egitasmoetan, bai herri ekimenetik sortutako Euskal Herriko kooperatibetan.

Euskal Herriko izaera horretako kooperatibetako bat, Izarkom telekomunikazio kooperatiba da. Izarkomen ezaugarri batzuk:

- Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboa da. 2017an sortua.

- Kooperatiba euskalduna eta euskaltzalea.
- Gizarte ekimenerako eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba.
- Ekonomia sozial eraldatzailea oinarri.
- Lan ereduak: parte hartzea eta elkarlana.
- Euskal Herrian azpiegitura telematiko eta telekomunikazio zerbitzuen gaineko burujabetzarantz bidea egiten joateko proiektua.
- Zerbitzuak: mugikorrak, Internet, finkoa eta telebista.
- Langileak: hamahiru. Hazten doan egitasmoa.
- Egoitzak: Irun eta Bilbo.

Izarkomeko arduradun batzuek hedabideetan esandako hitzak dira honakoak:

- “Izarkom telekomunikazio operadora bat da, gainontzeko operadora guztiek eskaintzen dituzten zerbitzu berak eskaintzen dituen, baina operadore bat dela esatea, besterik gabe, motz geratzea da. Izarkom, berez, herrigintzarako proiektu bat da; hau da, herri batek edo gizarte batek, bere telekomunikazio zerbitzuak nola jaso nahi dituen erabaki eta lantzeko proiektua da. (...) Euskal Herriko telekomunikazio burujabetzan ahalduentzeko prozesuan murgildu nahi dugu”.
- “Izarkom beste operadoreengandik bereizten duena, batez ere, proiektuaren filosofia da. Eguneroko funtzionamenduan, euskaraz sortutako proiektu bat da, eta erabiltzaileenganako komunikazioa eta arreta

zerbitzua euskaraz ematen ditugu. Horrez gain, gertuko arreta zerbitzua eskaintzen dugu. Kezka edo arazo bat duenak Izarkomera deitzen duenean, pertsona bat topatuko du linearen beste aldean; argi dugu pertsonekin ari garela hizketan eta hori asko eskertzen du erabiltzaileak. Zerbitzuen kalitateari buruz, beste edonork eskain dezakeen moduko zerbitzua eskaintzen dugu, ez gutxiago”.

- “Udal batzuen telefonia zerbitzua eta azpiegiturak Izarkomek kudeatzen ditu, eta horrek herri horietako plaza eta gune garrantzitsuetan herritar guztientzako wifi sare libreak sortzeko aukera eman die. (...) Bestalde, erakunde edo enpresentzako telekomunikazioen inguruko aholkularitza ere eskaintzen dugu”.
- “Guk proiektu ireki eta parte hartzaile bat sortu nahi genuen; proiektura gehituko zen lagun orok bere ahotsa izan eta erabakietan parte hartzeko aukera edukitzeko. Proiektu kolektibo bat jarri nahi genuen martxan, eta elkarlaneko proiektu hori juridikoki antolatzeko modu aproposena kooperatibaren eredua dela iruditu zitzaigun”.

Maiatzean talde eragileak bilera bat izan zuen Izarkomekin, aurrez Azpeitiko proiektuaren dokumentu bat pasatuta eta Azpeitian Izarkomen bazkidetza kanpaina egiteko aukera aipatuta. Bileran Izarkomeko arduradunek, lehenik eta behin, nabarmendu zuten oso proiektu interesgarria dela iruditzen zaiela Azpeitian kooperatibismoa indartzekoa, eta txalotu egin zuten ekimena.

Ondoren, esan zuten talde eragileak planteatutako bazkidetza kanpainaren ideia ona dela eta pozik hartu dutela; izan ere, batetik, Izarkomek uste du bere helburu filosofikoetan bete-betean sartzen dela Azpeitiko proiektu honen ekinbideetako bat izatea bere bazkidetza kanpaina; eta, bestetik, bere zabalkunde helburuetan ere, primeran datorkiela.

Ondorioz, bi parteak ados izanik, 2026an elkarrekin Azpeitian Izarkom telekomunikazio kooperatibaren bazkidetza kanpaina egiteko modua ikusten dugu, herriko entitateak eta norbanakoak hango bazkide izan, eta, hartara, herrian gero eta kooperatibista gehiago egon daitezzen. Herri ekimeneko kooperatiba baten aldeko neurri bat ere balitzateke.

2.6. KANPAINA: OTARRAK TOKIKO ELIKAGAIEKIN, ARTXARA KOOPERATIBAREKIN

Azpeitiko kooperatibak gehiago sustatzeko ekinbideak ere egin behar dira. Hori egin daiteke komunikazioaren bidez (ikus Komunikazioa atala). Baita bestelako neurrien bidez ere.

Neurri horietako bat da kanpainak egitea. Zernahi eta noiznahi, betiere kooperatibarekin adostasunez eta elkarlanean.

Proiektua egiteko bileratan aipatu izan da Artxara kooperatibarekin kanpaina bat egitea, tokiko elikagaiak sustatzeko. Harekin hitz eginda, ikusi den formula izan da Gabonetako otarrak banatzea, hala nahi duten entitateek erosita.

2018an sortutako kooperatiba da Artxara, Irabazi asmorik gabekoa, eta lehen sektorea berpizteko laguntza eskaintzen du. Azpeitiko Azoka plazan dauka egoitza; Elikagunea du bertan, saltoki bat. Tokiko produktuak saltzen ditu. 500 familia bazkide kontsumitzaile pasak osatzen dute kooperatiba.

Elikaguneaz izateaz gain, herriko zenbait jangela kolektibo elikagaiz hornitzen ditu: batez ere, esneki, fruta eta haragiaren bidez.

Eta enpresei, kooperatibei, bestelako entitateei eta norbanakoei Gabonetako otarrak prestatu izan dizkie. Tokiko elikagaiez prestatu, eta saldu egiten ditu. Beraz, 2026an horrelako kanpaina bat egin daiteke.

2026an zehar aztertuko da herriko kooperatiben bestelako kanpainak egin daitezkeen: produktuak, bazkidetza...

2.7. KOMUNIKAZIOA: BLOGA, BULETINA, 'GUKA'...

Azpeitian ekosistema kooperatiboa indartzeko abian jarritako apustuek eta bestelako berriek komunikatiboki ere isla izan behar dute, formatu desberdinetan. Forma bat eman behar zaio egitasmoari, balioak sozializatzen jarraitzeko, erreferentziak sortu edo indartzeko, transmisioan lan bat egiteko...

Prozesuan zehar esan da, adibidez: “Kooperatibak gauzak ondo egiten saiatzen dira, baina ez dute euren burua ondo saltzen”. Edo esan izan da

enpresa munduan lan istripu gutxien kooperatibetan izaten direla. Horretaz eta bestelakoez informatu eta komunikatu behar da.

Talde eragileak pentsatu du barne eta kanpo komunikazioa landu behar direla; bietara zuzendu behar direla mezuak.

Aurreikusitako modu batzuk:

- Barne komunikazioa:
 - Buletina, herriko kooperatibistentzat. Maiztasun batez, eta formak bilatu haiei iristeko.
- Kanpo komunikazioa:
 - Bloga sortu. Albisteak, elkarrizketak, argazkiak, ekitaldiak, kooperatiben ezaugarriak, herriko kooperatibismoaren historia...
 - Sare sozialak. Kanalak sortu.
 - *AzpeitiaGuka-eus* webgunean *Komunitatea*. Sortu atala. Azpeitiarren artean izugarrizko sarbidea duen webgunea da *AzpeitiaGuka.eus*, eta baliatu behar da herriko ekosistema kooperatiboaren berri emateko. 2024an lau milioi bisita pasa izan zituen; egunero, 11.318.

2026an zehar egongo da formatu berri gehiago pentsatzeko astia. Aipatu izan da dokumentala egitea.

2025eko ekainaren 16an, Azpeitian, talde eragilea